

BADU LARREAKO KOMENTUAK DAGOENEO HISTORIA ZEHATZ ETA DISTIRATSUA

Karmeldarron Nafarroako San Joakin Probintzia deritzaneko komentu gehienek dituzte argitaratuak beren historiak. Horrela, etxe bakoitzaren ibilbide historikoa finkaturik geratu ohi da etorkizunerako. Argitaratu berri den askenekoak “*Los Carmelitas en Larrea. Tres siglos de vida e historia*” du izenburua (Ediciones El Carmen, Larrea 2012, 832 orr.).

Hainbat ilustrazioz hornituta etorri zaigu. Ardura handiz egin nahi izan da komentu horren hirugarren mendeurrena (1712-2012) gogoratzeko asmoz. Egin-eginean orain dela hiru-rehun urte eraikia dugu. Larreako Jaunak karmeldarrei gonbi-



dapena egin zien Etxanoko udalerrian zeukan jauregi ondoko San Juan Bataiatzailearen kaperaren ardura izan zezaten. Elizatxo hura Amorebietako elizatik eta Zornotzako plazatik legoa laurdeneko distantzian zegoen kokatuta.

Julen Urkiza historialariak jakinduria handiz historia luze eta zehatza idatzi du. Historia osoa dela esan dezakegu. Kapitulu kapitulu historia aztertzen hasi aurretik fundazio honetako Karmeldarren izaera eta eginkizunak zuhertasun eta zehaztasun handiz aurkezten dizkigu. Hainbat datu oso interesgarri biltzen ditu pertsona eta gertakari zehatzen inguruan. Horrez gain, behin baino gehiagotan azken uneko zehaztasunak nahiz norabide bibliografikoak—oso zehatzak— ere jasotzen dira bigarren mailako beste hainbat ikuspuntu sakontzeko bideak irekiz.

Fundazio honek, historia barruko zenbait gertakariren artean, hala nola gerratean eta bestelako aldi larrietan, izandako ibilbidea eskaintzen ditu. Era berean, ospakizun garrantzitsu ugari ere jasotzen ditu. Beti lehen mailan jartzen ditu komentuko bizitza eta inguruan izandako eragina. Azpimarratzekoa da, batez ere, Iberiako Karmeldarren nobiziatu modura izandako urte ugariak (1876tik 1970ra arte), hain zuzen ere bertatik igaron zirelako bi mila nobizio baino gehiago. Horri, parrokia egin zuteneko data (1974) eta gogarte-etxearena (1977) erantsen dizkio gaur egun arte egindako bidea aurkeztuz.

Ez dezagun ahaztu 1907an ibilbidean hasitako latineko ikas-tegiak jarri zizkiola oinarriak Karmeldarrek Larreako jaunei erositako jauregian 1916an bokazioak prestatzeko egindako ikastetxeari. Ikasle gazteakn ugaritzeak Amorebietan 1933an karmeldarren seminario berria eraikitzea ekarri zuen. Larreako komentuak izugarrizko ekarpena egin dio Probintziari historian zehar heziketa-gune zereginetan.

Historia gaindituz, Aita Urkiza saiatuak, gorago aipatu bezala, historiaren arima den bizitza bera ere eskaintzen digu. Horrela, behar den neurrian nabarmentzen ditu komentuko bizi-



tza, Mariaren santutegi zerbitzuan egindako pastoralgintza distiratsua eta, bereziki, antzinatek hain indartsua izan den katekesi-lana; baita ere, herriz herri egindako sermolaritza-lan oparoa (izugarritzko jarduera jarritz aurrez aurre) ere; era berean, euskal kulturaren aldekoa profesionaltasuna handiko ekimen eta lorpen ugari eskaintzen dizkigu.

Horrez gain, “bizipenak” edo dei ditzakegun zenbait zer interesgarri ere aurkezten dizkigu, hala nola, komunitatearen eguneroko erlijio-bizitza, Jainkoaren presentzia eta isiltasuna, nobizioen heziketa, “Ohitura Santuak” deituen egitekoa eta ezarpena, eta abar.

Egoera larriak ere jasotzen dira, esaterako, gerra zibilean tropek komentua hartu zutenekoa, Aita Roman Urtiaga de San Jose fusilatu zutenekoa, Andre Maria koroatu zutenean aurreko gauean ekintzarako prestatutako koroa lapurtzean izandako gorabeherak, halako guztiak, jakina, zehaztasun eta agiri ugariz deskribatuta.

Julen Urkizak arreta handia jarri du, Robert Capa, de Cerdà Taro eta David “Chim” erreportariak 1937an Amorebietatik igarotzean Larrean (oraintsu Mexikon aurkitu berri direnen artetik aukeratuta) “Au cloître d’Amorebieta” izenpean bildutako argazkiak eskaintzen.

Historia honi argazki-sorta interesgarria eransten zaio, hain zuzen ere 135 orrialdetan bildua. Begietatik sartzen den historia bizia osotzen dute koloretan argitaratutako argazki horiek. Larreako komentuarien ibilbide historikoan zehar izandako hainbat gertakariaren deskripzio biziak ditugu. Bene-benetan interesgarriak! (Honetan eskertzekoa da Juan Mari Arrizabalagak egindako lana).

Probintziako etxe bakoitzak Larreako honek bezalako historia eskura izan dezanean, ondo gordeta geratuko da historia-ren hariko biziraupena.

Dámaso Zuazua / Patxi Uribarren.